

Komunikazioa >

Tragediak eta katastrofeak



Ekografiak
Aritz Galarraga

Hara gaur sekula nahiko ez nukeen kontu bati buruzko zutabea. Gaur nahiago nukeen uztailaren 25ak, Dia da Patria Galegak utzitako gaita eta bandera bestondoaz mintzatu; baina, lagunok, Santia-

gon gertatu den tren istripuak dena itzulipurdikatu du, ez soilik bagoiak, baita gure baitan zer edo zer ere. Aurten ez da uztailaren 25ik izan, 24an geratu dira denbora baterako egutegiak: 80 hildako eta 130 zauritu zenbatu dituzte le-
brook idazten ari naizenean.

Eta tragedia soilik humanoa balitz, tira, akaso ez genuke hona ekarri beharko ere. Badira horretarako beste atal batzuk egunkarietan. Gauza da tragedia telebis-
takoak ere izan dela. Espainia aldeko telebista publikoak istripuari emaniko kobertura hain izan bai-
tzen izugarria, izutzeko modu-

koa. Eta gauza da momentu batean ez zela besterik, Cuatrok, Telecincok, La Sextak ez zutelako istripuaren berri berehala eman, ostegun gauean; soilik Antena3ek ordu txikietan, eta or-
durako ostirala zenean —eta bes-
terik da biharamunean, kate pri-
bato guztiak aritu zirela odolaren usainean—.

Pentsatzen dut, ikusi ez baze-
nuten, imajinatuko duzuela Espainia aldeko telebista publi-
koak eskaini zuen espektakulu-
aren handia. Ez baita gisa bereko
lehen ezbeharrak —trazio han-
dia du Espainiak udako honda-

mendiekien—. Baina ez dugu
ikasten. Eta guztietan okerre-
na zera da: RTVEren estilo liburuak
baduela atal bat, *Tragediak eta
katastrofeak*, eta bertan azaltzen
dela halakoetan nola jokatu
beharko luketen etxeko profesio-
nalez. Bost gauza baino ez dira
eskatzen: urruntze emozionala
—eta gauza bat da emozio uhol-
deak kazetaria ez harrapatzea
eta distantzia beharrezko bate-
kin informatzea, baina beste bat
da aurkezlearen irribarre *lifting*
eta nagusigodun hori jasan
behar izatea—; biktimekiko kon-
promisoa —hainbat hilotz estal-

tzen dituzten hainbat manta,
zuri, gorri, marroi, hondartzako
toalla bat, hanka batzuk azpitik
denen bistan—; minarekiko
errespetua —biktimen familia-
koak korrika batetik bestera,
beren onetik irtenda, laguntza
exijituz desesperatuki—; hizkera
desegokia —hara, hizkera aski
egokia erabili zuten, are kazeta-
riak atentatuaren hipotesia erro-
tik baztertu ez zuten—; eta
sentsazionalismoa —ezer gehia-
go gehitu behar zaio orain arte
esandakoari—. Ba hori. Ea zer
edo zer ikasten dugun hurrengo
hondamendirako.

Midaseko egunkariak (IV) > Hego Tirolgo aleman eta ladinera hiztunen defentsaren alde lan egin dute 'Dolomiten' egunkarian sorreratik, eta larrutik ordaindu dute askotan horregatik: Mussoliniren eta nazien jazarpena sufritu dute.

Aleman hiztunen defendatzailea

Adrian Garcia

Hego Tiroleko aleman hiztunen egunkaria da *Dolomiten* 1882. urtetik. Egun Italiaren menpeko estatutik gabeko nazioa da Hego Tirol. Biztanle gehienak austriar jatorrikoak dira, eta alemana dute ama hizkuntza. «Hego Tiroleko aleman eta ladinera hiztunek austriarrek in-
deetako lotura kultural eta historikoa dugu», azaldu du Guenther Heidegger egunkariko zuzendariordeak. Heidegger duela 25 urte hasi zen egunkarian lanean. Haren arabera, *Dolomiten* «joera katolikoko egunkari independentea» da. Hedabidearen helburu nagusia herrialdeko aleman eta ladinera hiztunen eskubide etniko, kultural, ekonomiko eta sozialak defendatzea da.

Bolzano Hego Tiroleko hiriburu duen egoitza *Dolomiten*-ek. Alemana bada ere hedabidearen hizkuntza nagusia, ladinera orri bat argitaratzen dute. Hizkuntza horretan hitz egiten duen guztiengoa bat dago Hego Tirolen; erretorromanieraren dialekto nagusietako bat da, eta biztanleen %4ak hitz egiten du, 20.000 lagun inguruk. «Ladineraren biziraupenaren alde borrokatzen dugu», dio Heideggerrek. Italiara eta alemana hizkuntza ofizialak dira herrialde osoan, eta hainbat herritan ladinera ere aitorza bera du.

Astean sei egunetan argitaratzen dute, astelehentik larunbatera bitartean. 55.000 ale inguru saltzen dituzte Hego Tirol osoan, gehientsuenak harpidetza bidez.



Hego Tirol osoan argitaratzen da *Dolomiten* egunkaria. Orrialde bat ladinera argitaratzen dute. DOLOMITEN

Udaran tiroldarren oporleku nagusietan ere saltzen dute, Adria inguruan, Itsaso Adriatikotik gertu. 51 kazetarik egiten dute lan Bolzanoko erredakzioan. Gainera, 200 lagun inguruko kolaboratzaile sare zabala dute.

Hego Tirol dute erreferentzia-tzat, eta herrialdeko gertakariak hartzen dute egunkariko leku nagusia. Hala ere, nazioarteko berriak ere jorratzen dituzte, eta Italiako albisteek toki garrantzitsua dute hedabidean. «Ez gara Italiako nazioaren parte sentitzen, baina Italia ez da herrialde atzerritar bat guretzat», azaldu du zuzendariordeak.

Krisiari aurre egiteko, gastuak murriztu eta Interneteko presen-

tzia handitu dute. «Salmentak ez dira gehiegi jaitsi; publizitatearen beherakada izan da okerre-na», dio Heideggerrek. «Argitaratzen ditugun orri kopuruekin ten-tu handiz jokatzen dugu orain». 42 orri inguru kaleratzen dituzte, baina lau bat orrialdeko gora-beherak izaten dituzte. «Lehen beti orri gehiago kaleratzen saiatzen ginen. Orain, beharantz egiteko joera dugu».

Bi atari nagusi kudeatzen dituzte Interneten. Papereko eduki guztiak sarean jartzen dituzte, baina harpidetza bidez eskura daitezke soilik. Bestalde, *stol.it* atarian herrialdeko albisteak ezter ordaindu gabe jarrai daitezke. «Idatzizko eta sareko kazeta-

riek elkarrekin lan egiten dute sin-
nergiak aprobetxatzeko». Heideggerrek uste du prentsa idatzi-
ak etorkizunean ere rol garrantzitsu bat beteko duela. «Halere, sareko euskarri garrantzitsu bat izan beharko dute».

Faxismoarekin borrokan

Faxismoaren atzaparrak gertu-tik sentitu ditu *Dolomiten*-ek bere historian luzean zehar. *Der Tiroler* izenarekin sortu zuten 1882. urtean, Hego Tirol Austriaren zati bat zen garaian. Lehenengo Mundi Gerraren ostean, 1919. urtean, Tirol bitan zatitu, eta Italiak hegoaldeko zatia beretu zuen. Bost mendez Austriaren menpe egon zen ordurarte.

Benito Mussolini boterera iris-tean hasi ziren egunkariaren arazoak. Egun, biztanleriaren laurdenaren ama hizkuntza da ita-lia. Haatik, Heideggerrek azaldu duenez, 1919an italiar jatorriko herritarrik apenas zegoen. 1911ko erroldaren arabera, 7.000 italiar hiztun zuden Hego Tirolen. Mussolinik martxan jarritako *italiar-tze prozesuak* aleman eta ladino hiztunak jazarri zituen.

Italiartze kampania horren ba-
rruan, 1923an izena aldatu behar izan zuen berripaperak; Tirol ize-naren edozein aldaera debekatu zuten. *Der Landsmann* izenarekin jarraitu zuten argitaratzen. Inguruko beste alemanezko he-dabideak bezala, 1925an itxi egin zuten gobernuaren aurkako ekint-zak egitea leporatuta. Urtebete beranduago utzi zieten berrirori argitaratzen, baina baldintza eta muga gogorrek. Orduan jarri zioten *Dolomiten* izena, Alpeetako mendiguneari erreferentzia eginez.

1943. urtean naziek egunkaria itxi zuten, eta ihes egitea lortu ez zuten kazetari eta langileak Alemaniako Dachau kontzentrazio esparrura eraman zituzten. *Dolomiten*-ren baliabideak konfiska-tu, eta euren egunkari propioa atera zuten naziek.

Aliatuen behin behineko gobernuak argitaratzeko baimena eman zion egunkariari, eta 1945eko maiatzaren 19an jarri zuten berrirori martxan. Ordutik, ete-nik gabe bere eginkizuna bete du Hego Tiroleko egunkariak.

Bihar: Italiako *Primorski dnevniki* eslovenierazko egunkaria.